

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/126/EE ZUZENTARAUA, EUROPAR PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2006ko abenduaren 20koa, gidabaimenari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: *Directiva 2006/126/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, sobre el permiso de conducción (Refundición)* (Diario Oficial de la Unión Europea, L 403 de 30/12/2006, pg. 18)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2006/126/EE ZUZENTARAUA, EUROPAR PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2006ko abenduaren 20koa, gidabaimenari buruzkoa (testu bategina)
(Texto pertinente a efectos del EEE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua aztertu dute, eta bereziki, haren 71. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraiki (

¹ EO C 112, 2006.6.14koa, 34. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

¹):

Hauek kontuan hartu dira:

(1) Sarri eta nabarmen aldatua izan da Kontseiluaren 1991ko uztailaren 29ko 91/439/EEE zuzentaraua, gidabaimenari buruzkoa (²). Zuzentarau hori berriro aldatzekoa denez, komeni da, argitasunaren mesedetan, haren xedapenak bateratzea.

(2) Gidabaimenari buruzko araudiak ezinbestekoak dira garraio-politika bateratua egiteko; izan ere, batetik, bide-segurtasuna handitzen laguntzen dute; eta bestetik, erraztu egiten dute pertsonen joan-etorri askea, haiek gidabaimena eman duen estatu kidea ez den beste estatu kide batean bizi badira. Garraibide indibiduala izatea garrantzitsua izaki, harrera-estatuak gidabaimena behar bezala onartzen badu, bultzatu egiten du bai pertsonen joan-etorri askea, bai eta haiek askatasunez aukeratu ahal izatea non bizi ere. Gidabaimenari buruzko arauak harmonizatze aldera, aurrerapen handiak egin dira. Baina, hala ere, oraindik alde handiak daude estatu kideen artean, gidabaimenak zer maiztasunekin berritu edota ibilgailuak nola azpikategorizatu arautzeko garaian. Beharrezkoa da bi alderdi horiek hobeto harmonizatzea, Erkidegoko politikak aplikatzen laguntzeko.

(3) 91/439/EEE zuzentaruaren arabera estatu bakoitzak bere balio-epeak emateko aukera duenez, estatu kideetan aldi berean hainbat arau eta baliozko 110 gidabaimen-eredu desberdin baino gehiago daude. Egoera horrek gardentasun-arazoak sortzen ditu bai hiritarren artean, bai polizian, bai eta gidabaimena kudeatzen duten administrazioetan ere. Horren ondorioz, agiriak faltsutu izan dira, batzuetan, hamarkada ugari zehar.

(4) Dagoeneko erabiltzen diren 110 gidabaimenez gain Europako gidabaimen bakarra beste bat gehiago izan ez dadin, estatu kideek neurriak hartu behar dituzte gidabaimena duten titular guztiei gidabaimen bakar hori emateko.

(5) Zuzentarau honek ez du eraginik izango hau aplikatzen hasi aurretik emandako edo jasotako gidatzeko baimenen gainean.

(6) Elkarrekiko onarpena dago. Estatu kide batean bi urte baino gehiago bizi izan bada pertsona bat, eta estatu horrek eman dion gidabaimenaren balio administratiboak mugarik ez badu, gainerako estatu kideek zuzentarau honetan agindutako balio-epaia aplikatu ahal izango dute titularraren gainean.

(7) Gidabaimen berrietarako balio-epaia administratibo ezartzeari esker, gidabaimenak berritzean hainbat neurri hartu ahal izango dira: esaterako, faltsutzeari kontra egiteko metodoak, mediku-azterketak, edota estatu kideek erabakitzen dituzten beste zenbait. 403/18 L EU Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala 2006.12.30

(8) Gidabaimenak emateko, beharrezkoa da gutxieneko baldintza batzuk ezartzea; izan ere, horrela, bide-segurtasuneko zenbait baldintza bete ahal izango dira. Harmonizatu egin behar dira, bai gidariak egin beharreko azterketei buruzko arauak; bai gidabaimenak emateari buruzkoak. Horretarako, batetik, zehaztu egin behar da zer ezagutza, gaitasun, eta jokabide behar diren ibilgailu motordunak gidatzeko; bestetik, kontzeptu horien arabera egituratu behar da gidabaimena lortzeko azterketa; eta azkenik, berriro idatzi behar dira ibilgailu motordunak gidatzeko behar diren gorputz- eta adimen-gaitasunei buruzko gutxieneko arauak.

(9) Gidabaimena ematen zaienean, eta, geroago, erregularitasunez, pertsonak edo merkantziak garraiatzeko ibilgailuetako gidariak erakutsi behar dute gorputz- eta adimen-gaitasunari buruzko gutxieneko arauak betetzen dituztela. Gutxieneko arauak betetzeko estatuko arauak jarraituz, aldizkako kontrol horri esker erraztu egingo dira zenbait helburu lortzeko bidea; hala nola, pertsonen joan-etorri askea lortzea; lehia ez faltsutzea; edota hobeto hausnartzea ibilgailu horietako gidariak duten erantzukizun konkretuaren gainean. Mediku-azterketak exijitzeko ahalmena eduki behar dute estatu kideek, horrela berma baitezakete gidariak badutela ibilgailu motordunak gidatzeko behar den gorputz- eta adimen-gaitasuna. Gardentasunaren mesedetan, azterketa horiek gidabaimena berritzearekin batera egin beharko dira; hortaz, gidabaimenaren balio-epaia zehaztuko du noiz egin behar diren.

(10) Komeni da era hertsia goan aplikatzea arauaren ezarpen progresiboaren printzipioa, bai bi gorpileko ibilgailuei, bai bidaiariak edo merkantziak garraiatzeko ibilgailuei.

¹ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko otsailaren 23koa (EO C 304, 2005.12.1ekoa, 202. or.), Batzordearen Jarrera Bateratua, 2006ko irailaren 18koa (EO C 295, 2006.12.5ekoa, 1. or.) eta Parlamentuaren Jarrera, 2006ko abenduaren 14koa (Aldizkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 19koa.

² EO L 237, 1991.8.24koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azken aldiz Zuzentaraua (EO L, 2003.10.31koa, 41. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(11) Nolanahi ere, estatu kideek adin-muga igo ahal izango dute ibilgailuen zenbait kategoria gidatu ahal izateko, horrela bide-segurtasunaren alde egiteko. Salbuespenezko egoeratan, estatu kideek adin-muga jaitsi ahal izango dute, estatuko egoera kontuan izateko.

(12) Kategoriak zehaztean, egokitasunez adierazi behar da zer ezaugarri tekniko dituzten ibilgailuek, bai eta zer gaitasun behar diren ibilgailuak gidatzeko ere.

(13) Ziklomotorrentzako gidabaimen-kategoria txertatzeak helburu jakin bat dauka: alegia, gidari gazteenek bidean duten segurtasuna handitzea. Izan ere, estatistiken arabera, errepide-istripuek haiei egiten die kalte handiena.

(14) Ezinbestekoa da xedapen espezifikoak hartzea, ezintasun fisikoren bat duten pertsonentzat errazagoa izan dadin ibilgailuak gidatzea.

(15) Bide-segurtasun kontuak direla eta, pertsona baten ohiko bizilekua estatu kide batean badago, eta pertsona hori gidabaimenaren titularra bada, komenigarria da estatu horrek haren gainean estatu-xedapenak aplikatu ahal izatea, hain zuzen ere, gidabaimena kendu, indargabetu, berritu eta deuseztatzeko.

(16) Plastikozko txartelaren itxura duen gidabaimen bakarrak ordezkatu beharko du 91/439/EEE Zuzentarauan araututako gidabaimena. Era berean, eredu hori moldatu egin behar da, bi gidabaimen-kategoria berri sortu baitira: bata ziklomotorrentzat, eta bestea motozikletentzat.

(17) Gidabaimen berriaren formatuan, alegia, txartel plastifikatuan, aukerakoa da mikrotxip bat jartzea. Formatu berri horri esker, estatu kideak hobeto babestu ahal izango dira iruzurretik. Estatu kideek malgutasuna izan beharko lukete estatu-mailako datuak txipean txertatzeko, baldin eta horrek ez badu eragozten erkidegoko datuetara jotzea. Batzordeak gidabaimenaren komitearen laguntzarekin arautuko du zer betekizun tekniko aplikatu ahal izango diren mikrotxipean.

(18) Aztertzaile izatera nola iritsi eta zer prestakuntza-betekizun eduki behar diren erregulatzeko, gutxieneko arau batzuk xedatu behar dira. Hori eginez gero, batetik, gidabaimena ateratzeko bidean dauden pertsonak objektiboki ebaluatuko dituztela bermatu ahal izango dugu; eta, bestetik, gidabaimen-probak gehiago harmonizatzea lortuko dugu.

(19) Komenigarria da Batzordea hastera I-IV. Eranskinak aurrerapen zientifiko eta teknikoetara moldatzen.

(20) Kontseiluak 1999ko ekainaren 28an hartutako 1999/468/EE Erabakian ezarritakoari jarraituz, zuzentzarau hau betetzeko behar diren neurriak onartuko dira. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko ⁽¹⁾.

(21) Bereziki komenigarria da batzordea gaitzea, zuzentzarau hau aplikatzeko behar diren irizpideak ezar ditzan. Neurri orokorrak dira, eta zuzentzarauan oinarritzkoak ez diren elementuak aldatzea dute helburu. Neurri horiek hartzeko, erabakiko 5. bis artikuluan ezarritako araugintza-prozedura kontrolatuari jarraitu beharko zaio.

(22) Estatu kideak ez dira gai zuzentzarau honen helburuak behar bezala betetzeko, eta, haien neurriari edo ondorioei erreparatuta, hobeto lor daitezke erkidego-mailan. Horregatik, Erkidegoak neurriak har ditzake, tratatuko 5. artikuluan zehaztutako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, helburu horiek betetzeko behar den araupena egitera mugatzen da zuzentzarau hau.

(23) Zuzentzarau honek ez du eraginik estatu kideen betebeharren gainean: ez zuzentzaraua estatuko zuzenbidean sartzeko epeari dagokionez, ezta VII Eranskinen B zatiko zuzentzarauak aplikatzeari dagokionez ere.

ZUZENTARAU HAU HARTU DUTE:

1. artikulua **Baimen-eredua**

1. Zuzentzarau honetan araututakoari jarraituz, estatu kideek I. Eranskinen Erkidegoko ereduaren arabera xedatuko dute estatuko gidabaimen-eredua. Baimena ematen duen estatu kidearen ikurra enbleman agertuko da. Enblema hori erkidegoko gidabaimenaren ereduko 1. orrialdean azaltzen da.

2. Estatu kideek memoria-baliabide bat (mikrotxipa) txertatu ahal izango dute gidabaimenean, baina hala ere, datuak babesteko arauak bete beharko dituzte. Mikrotxipa txertatu baino lehen, edonola ere, 9. artikuluko 2. paragrafoko

¹ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. (EO L 200, 2006.7.22koa, 11. or.) 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozeduraren arabera, batzordeak arautu egin beharko du I. Eranskinetako zer betekizun tekniko bete behar dituen. Betekizunon helburu izango dira zuzentarauan beharrezkoak ez diren elementuak aldatzea, eta hura osatzea. Betekizun horiek EEko homologazioa aurreikusi beharko dute. Izan ere, homologazio hori lortzeko, frogatu egin behar da mikrotxipeko datuak ezin direla ez manipulatu eta ez aldatu.

3. I. Eranskinetako araututako gidabaimenaren datu harmonizatuak mikrotxiparen barruan egongo dira. Batzordearekin kontsultatu ondoren, estatu kideek daturen bat gehiago sartu ahal izango dute, baldin eta datu horiek sartzeak ez badu eragozten zuzentaru hau aplikatzea. 9. artikuluko 2. paragrafoan azaldutako prozedurari jarraituz, batzordeak I. Eranskina aldatu ahal izango du, etorkizunean denek elkarrekin lan egin ahal izango dutela bermatzeko.

4. Batzordearekin adostu ondoren, estatu kideek behar adina egokitu ahal izango dute I. Eranskinetako eredia, gidabaimenaren tratamendu informatikoa hobetzeko.

2. artikulua

Elkarrekiko onarpena

1. Estatu kide batean egindako gidabaimena besteetan ere onartuko da.
2. Baldin eta titular batek ohiko bizitokia duen estatu kidea ez den beste estatu kide batean egin bazuen gidabaimena, eta baimen horrek ez badu 7. artikuluko 2. paragrafoan araututako balio administratiboaren mugarik, harrera egiten dion estatu kideak gidabaimena berriarazi ahal izango dio, 7. artikuluko 2. paragrafoko balio administratiboaren epearen arabera. Arau hori aplikatu ahal izateko, titularrak bi urte edo gehiago eman behar izango ditu harrerako estatu kidean bizi izateko.

3. artikulua

Faltsutzearen kontrako neurriak

1. Estatu kideek behar adina neurri hartuko dute ez dadin egon gidabaimenak faltsutzeko arriskurik, zuzentaru hau indarrean sartu baino lehen egindakoak barne. Batzordeari horren berri emango diote.

2. 9. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera batzordeak agindutako zehaztapenak aplikatuz, I. Eranskinetako adierazitako gidabaimenerako materiala babestu egin beharko da faltsutzearen kontra. Zehaztapen horien helburuak hauek izango dira: zuzentarauan beharrezkoak ez diren elementuak aldatzea, eta hura osatzea. Estatu kideek segurtasun-ezaugarri gehiago ere txertatu ahal izango dituzte.

3. Estatu kideen ardura izango da, 2003ko urtarrilaren 19a baino lehen, zuzentaru honetako betekizun guztiak betetzea gidabaimen guztiak –egiten dituztenek eta zirkulazioan daudenek–.

4. artikulua

Kategoriak, definizioak eta gutxieneko adinak

1. 1. artikuluan xedatutako gidabaimenak beherago azaltzen diren kategoriatan zer ibilgailu motordun gidatu ahal izango diren arautzen du. Gidabaimen hori egin ahal izateko, kategoriatan bakoitzerako ezarritako gutxieneko adina izan beharko da. “Ibilgailu motordun” terminoaren barruan honako ibilgailu hauek sartzen dira: errepidean bere baliabideei esker auto-propulsiio bidez zirkulatzen dutenak, errailen gainean higitzen direnak salbu. 403/20 L EU Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala 2006.12.30.

2. Ziklomotorrak (AM kategoriatan)

— 2002ko martxoaren 18ko 2002/24/EE Zuzentaruak, Europako Parlamentua eta Kontseiluarenak, bi edo hiru gurgpileko ibilgailuen homologazioari buruzkoak, indargabetu egiten du Kontseiluaren 92/61/EE Zuzentaruak⁽¹⁾; eta 1. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian arautu egiten du zein diren bi edo hiru gurgpileko ibilgailuak: hain zuzen ere, gehienez 45 km/h-ko abiadura dutenak (gehienez 25 km/h-ko abiadura dutenak salbu), eta 2002/24/EE Zuzentaruako 1. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian definitutako kuadriziklo arinak.

— AM kategoriarako gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

3. sidekarrak duten eta ez duten triziklo motordunak

¹ EO L 124, 2002.5.9koa, 1. or. (EO L 106, 2005.4.27koa, 17. or.) 2005/30/EE Zuzentaruak aldatu zuen azken aldiz Zuzentaruak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

— “Motozikletatzat” joko dira 2002/24/EE Zuzentarauko 1. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian definitutako ibilgailuak; hau da, bi gurpilekoak, eta sidekarra dutenak eta ez dutenak.

— “Triziklo motorduntzat” joko dira 2002/24/EE Zuzentarauko 1. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian definitutako ibilgailuak; hau da, hiru gurpil simetrikoki jarrita dituztenak.

a) A1 kategoria:

— gehienez 125 cm³-ko zilindrada, gehienez 11 kW-ko potentzia, eta gehienez 0,1 kW/k-ko potentzia/pisu erlazioa duten motozikletak.

— 15 kW baino potentzia txikiagoa duten triziklo motordunak.

— A1 kategoriarako gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

b) A2 kategoria:

— gehienez 35 kw-ko potentzia eta gehienez 0,2 Kw/kg-ko potentzia/pisu erlazioa duten motozikletak dira, eta ezin dute beraien potentzia bikoizten duen beste ibilgailu batetik eratorriak izan,

— A2 kategoriarako gutxieneko adina 18 urtekoa izango da;

c) A kategoria:

i) motozikletak,

— A kategoriarako gutxieneko adina 20 urtekoa izango da. Nolanahi ere, pertsona batek kategoria horretako motozikletak gidatzeko baimena lortuko du, baldin eta gutxienez 2 urte eman baditu A2 baimenari dagozkion motozikletak gidatzen. Pertsona horrek 24 urte baino gehiago baditu, ezingo zaio esperientzia hori exijitu.

ii) 15 kW baino gehiagoko potentzia duten triziklo motordunak;

— 15 kw baino gehiago dituzten triziklo motordunak gidatzeko, 21 urte izan beharko dira gutxienez.

4. automobilak:

— “automobiltzat” jotzen diren ibilgailu motordunak izango dira: batetik, pertsonak eta gauzak errepidean garraiatzeko erabiltzen direnak; eta bestetik, pertsonak eta gauzak garraiatzeko ibilgailu horiek errepidean atoian eramateko erabiltzen direnak. Halaber, termino horren barruan sartzen dira trolebusak, hau da, linea elektriko bati lotuta daudela (eta ez errailen gainean) zirkulatzen duten ibilgailuak. Nekazaritzako eta basoko traktoreak ez dira “automobiltzat” hartzen .

— “nekazaritzako eta basoko traktoretzat” hartzeko, ibilgailu motordun batek honako ezaugarri hauek izango ditu: gurpilak edo beldar-kateak; bi ardatz gutxienez; nagusiki trakzioa egiteko erabiltzea; bereziki diseinatuta egotea tresna, makina edota nekazaritzako eta basoko ustiapen-lanetan erabiltzen diren atoiak arrastatzeko, bultzatzeko, garraiatzeko edo eragiteko; bigarren maila batean bakarrik erabiltzea pertsonak eta gauzak errepidean garraiatzeko, edota pertsonak eta gauzak errepidean garraiatzen dituzten ibilgailuak atoian eramateko.

a) B 1 kategoria:

— 2002/24/EE Zuzentarauko 1. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatian definitutako kuadrizikloak;

— B1 kategoriarako gutxieneko adina 16 urtekoa da;

— B1 kategoria aukerakoa da: estatu kideren batek ez badu kategoria hau txertatzen, B kategoriako gidabaimena exijitu beharko du ibilgailu horiek gidatzeko.

b) B kategoria:

automobilok gehienez 3.500 kg-ko masa izango dute; gidaria kontatu gabe, gehienez 8 bidaiari garraiatzeko diseinatuta eta eginda egon behar dute; eta gehienez 750 kg-ko masa duen atoa eraman ahal izango dute lotuta. Ibilgailu horiek

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

dagozkien homologazio-arauak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, kategoria honetako automobilerik gehienez 750 kg-ko masa duen atoa eraman ahal izango dute lotuta, baldin eta araututakoaren arabera, ibilgailu-taldeak guztira 4.250 kg baino gutxiagoko masa badu. Ibilgailu-taldeak 3.500 kg baino gehiago izango balitu, V. Eranskinean araututakoari jarraituz, estatu kideek honako hau exijitu ahal izango dute ibilgailu-talde hori gidatu ahal izateko:

— trebakuntza edukitzea, edota

— gaitasun- eta jokabide-proba gainditzea.

Estatu kideek, halaber, bi gauzak exijitu ahal izango dituzte: alegia, trebakuntza edukitzea eta gaitasun- eta jokabide-proba gainditu izana.

Erkidegoko kodearen bitartez, estatu kideek gidabaimenean adieraziko dute titularrak ibilgailu-talde hori ere gidatzeko baimena duela. B kategoriarako gutxieneko adina 18 urtekoa izango da.

c) BE kategoria:

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, B kategoriako traktore bat, eta bestetik, 3.500 kg baino gutxiagoko atoi edo erdi-atoi bat. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— BE kategoriarako gutxieneko adina 18 urtekoa izango da.

d) C1 kategoria:

D1 eta D kategorietako automobilerik ez bezala, C1 kategoriako gidabaimenarekin gida daitezkeen ibilgailuen gehieneko masak 3.500 kg baino gehiago eta 7.500 kg baino gutxiago izan behar ditu; gidaria kontatu gabe, gehienez 8 pertsona garraiatzeko diseinaturik eta eginda egon behar dute; eta gehienez 750 kg-ko masa izango duen atoa eraman ahal izango dute lotuta.

e) C1E kategoria:

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, C1 kategoriako traktore bat, eta bestetik, 3.500 kg baino gutxiagoko atoi edo erdi-atoi bat, beti ere talde osoaren masa baimenduak 12.000 kg baino gutxiago baditu. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, B kategoriako traktore bat, eta bestetik, 3.500 kg baino gehiagoko gehieneko masa duen atoi edo erdi-atoi bat, beti ere talde osoaren masa baimenduak 12.000 kg baino gutxiago baditu. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— C1 eta C1E kategorietarako gutxieneko adina 18 urtekoa izango da. Nolanahi ere, gidariak bete egin beharko dituzte ibilgailu horiek gidatzeari buruzko xedapenak, 2003/59/EE Zuzentarauan, 2003ko uztailaren 15ekoan, azaltzen direnak. Zuzentzarau horrek arautzen du zer hasierako eta etengabeko trebakuntza behar den pertsonak eta merkantziak errepidean garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak gidatzeko. (1).

f) C kategoria: D1 eta D kategorietako automobilerik ez bezala, C1 kategoriako gidabaimenarekin gida daitezkeen ibilgailuek 3.500 kg baino gehiagoko gehieneko masa izan behar dute; gidaria kontatu gabe, gehienez 8 pertsona garraiatzeko diseinaturik eta eginda egon behar dute; eta gehienez 750 kg-ko masa izango duen atoa eraman ahal izango dute lotuta.

g) CE kategoria:

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, C kategoriako traktore bat, eta bestetik, 750 kg baino gehiagoko gehieneko masa duen atoi edo erdi-atoi bat. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— C eta CE kategorietarako gutxieneko adina 21 urtekoa izango da. Nolanahi ere, bete egin beharko da 2003/59/EE Zuzentzaraua, ibilgailu horiek gidatzeari buruzkoa.

¹ EO L 226, 2003.9.10ekoa, 4. or. (EO L 168, 2004.5.1ekoa, 35. or.) Kontseiluaren 2004/66/EE Zuzentzarauak aldatu zuen Zuzentzaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

h) D1 kategoria:

— gidaria kontatu gabe, gehienez 16 pertsona garraiatzeko diseinatutako eta egindako automobilak dira; gehienez 8 m-ko luzera izango dute; eta gehienez 750 kg-ko masa duen atoa eraman ahal izango dute lotuta.

i) D1E kategoria:

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, C1 kategoriako traktore bat, eta bestetik, 750 kg baino gehiagoko gehieneko masa duen atoi edo erdi-atoi bat. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— D eta D1E kategorietarako gutxieneko adina 21 urtekoa izango da. Nolanahi ere, bete egin beharko da 2003/59/EE Zuzentaraua, ibilgailu horiek gidatzeari buruzkoa;

j) D kategoria:

— gidaria kontatu gabe, 8 pertsona baino gehiago garraiatzeko diseinatutako eta egindako automobilak dira; eta gehienez 750 kg-ko masa duen atoa eraman ahal izango dute lotuta.

k) DE kategoria:

— elkarri lotutako bi ibilgailuk osatzen duten taldea da: batetik, D kategoriako traktore bat, eta bestetik, 750 kg baino gehiagoko gehieneko masa duen atoi edo erdi-atoi bat. Nolanahi ere, ibilgailuetako bakoitzak dagozkion homologazio-arauak bete beharko ditu.

— D eta DE kategorietarako gutxieneko adina 24 urtekoa izango da. Nolanahi ere, 2003/59/EE Zuzentaraua, ibilgailu horiek gidatzeari buruzkoa ere bete beharko da;

5. Batzordearekin adostu ondoren, estatu kideek ez dute artikuluko hiru nahitaez aplikatu beharko zenbait ibilgailu motordunen gainean: esaterako, desgaitasunen bat duten pertsonentzako ibilgailu berezien gainean. Estatu kideek ez dute artikuluko hiru nahitaez aplikatu beharko zenbait ibilgailuren gainean, hau da, indar armatuek eta segurtasun zibilak erabiltzen dituzten, edota beraien kontrolpean dituzten ibilgailuen gainean.

6. Estatu kideek igo edo jaitsi ahal izango dute gidabaimena egiteko gutxieneko adina: a) AM kategoriarako, gutxienez 14 urte eta gehienez 18; b) B1 kategoriarako, gehienez 18 urte; c) A1 kategoriarako, gehienez 17 edo 18 urte:

— baldin eta A1 eta A2 kategorietako gutxieneko adinen artean bi urteko aldea badago, eta

— baldin eta A2 kategoriako motozikletak gidatzeko, lehenago A2 motozikletak gutxienez bi urtetan gidatu izana exijitzen bada, 4. artikuluko 3. paragrafoko e) idatz-zatiko i) koma-artearen arautzen duenari jarraituz.

d) B eta BE kategorietarako, gutxienez 17 urte.

Estatu kideek C kategoriako gutxieneko adina 18 urtera jaitsi ahal izango dute, eta D kategoriakoa 21 urtera igo, honako kasu hauetan:

a) suhiltzaileek erabiltzen dituzten ibilgailuak eta ordena publikoa mantentzeko ibilgailuak direnean;

b) ibilgailua teknikoki ikuskatu, konpondu edo zaindu nahi denean.

2.-4. paragrafoetan araututako gutxieneko adina izan gabe, pertsona bati gidabaimena egin badiote paragrafo honi jarraituz, gidabaimen horrek estatu kide horretan bakarrik izango du baliozkotasuna, harik eta titularrak 2a paragrafoan araututako gutxieneko adina bete arte.

2.-4. paragrafoetan araututako gutxieneko adina eduki ez, eta pertsona batek gidabaimena badu, gidabaimena egindako estatu kidean bertan bakarrik izango da baliozkoa.

5. Artikulua **Baldintzak eta mugaketak**

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Gidabaimenean aipatu egingo da gidariak zer baldintzatan gida dezakeen.
2. Desgaitasun fisikoak izateagatik, pertsona batek ibilgailu jakin batzuk edo ibilgailu moldatuak soilik gida baditzake, era horretako ibilgailu baten barruan egin beharko du 7. artikuluko gaitasun- eta jokabide-proba.

6. Artikulua

Pixkanaka sartzea eta kategorien arteko baliokidetasunak

1. Gidabaimena egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) C1, C, D1 eta D kategorietako baimena egiteko, gidariak dagoeneko B kategoria eduki behar dute;
 - b) BE, C1E, CE, D1E eta DE kategorietako baimena egiteko, gidariak dagoeneko B, C1, C, D1 eta D kategoria eduki behar dute, hurrenez hurren.
2. Gidabaimenaren baliozkotasuna horrela arautuko da:
 - a) C1E, CE, D1E edo DE kategorietako baimenak BE kategorietako ibilgailu-taldeetarako ere balioko du;
 - b) CE kategoriako baimenak DE kategoriarako ere balioko du, baldin eta haren titularrak D kategoria ere badauka;
 - c) CE eta DE kategoriako baimenak C1E eta D1E kategorietako ibilgailu-taldeetarako ere balioko du, hurrenez hurren.
 - d) Edozein kategoriatako baimenak AM kategoriako ibilgailuetarako ere balioko du. Hala ere, estatu kideek AM kategoriarekiko baliokidetasunak mugatu nahi izanez gero, eta hura A1, A2 eta A kategorien pareko bakarrik izan dadin arautu, AM kategoria lortzeko azterketa praktikoa ezarriko dute;
 - e) A2 kategoriako baimenak A1 kategoriarako ere balioko du;
 - f) A, B, C edo D kategoriako baimenak A1, A2, B1, C1 edo D1 kategorietarako ere balioko du, hurrenez hurren.
3. Estatu kideetan gidatzeko, estatu kide bakoitzak bere lurralderako baliokidetasun hauek onartu ahal izango ditu:
 - a) B kategoriako gidabaimena eskatzen duten triziklo motordunen eta 15 kW baino gehiagoko potentzia duten triziklo motordunen artekoa, baldin eta B kategoriaren titularrak 21 urte baditu gutxienez;
 - b) A1 kategoriako motozikleten eta B kategoriako gidabaimenen artekoa;

Paragrafo honen balioa lurraldearen arabera aldatu egiten denez, estatu kideek ez dute gidabaimenean bertan adieraziko titularrak beste ibilgailu horiek ere gidatzeko baimena duela.

4. Batzordearekin kontsultatu ondoren, estatu kideek honako ibilgailu hauek gidatzeko arauak eman ahal izango dituzte:
 - a) D1 kategoriako ibilgailuak: gehieneko masa 3.500 kg dute, eta ez dira multzo honetan sartzen desgaitasunen bat duten bidaiariak garraiatzeko bereziki prestatutako ekipamenduak. Ibilgailu hauek gidatzeko, gutxienez 21 urte izan behar dira, eta B kategoriako gidabaimena gutxienez bi urtean eduki izan behar da. Ibilgailuon xedea merkataritzatik kanpo dauden erakundeek gizaritari zerbitzatzea izango da, eta gidariak bere burua borondatez eskainiko du lan horretarako.
 - b) gehienez 3.500 kg baino gehiagoko masa duten ibilgailuak, eta haiek gidatzeko gutxienez 21 urte izan behar dira, eta B kategoriako gidabaimena gutxienez bi urtean eduki izan behar da. Ibilgailuok hezkuntza- eta jolas-xedea izango dute nagusiki, xede horiek geldirik betetzeko; merkataritzatik kanpo dauden erakundeek helburu sozialak betetzeko erabiliko dute; eta ibilgailuak pixka bat aldatua egon behar du, halako moldez non bertan, batetik, 9 pertsona gehienez garraiatu ahal izango diren, eta bestetik, ondasunak, baina ibilgailu horiek beren diseinuagatik garraiatu ahal dituztenak bakarrik .

7. Artikulua

Egitea, baliozkotasuna eta berritzea

1. Gidabaimena emateko, baldintza hauek bete behar dira:
 - a) gaitasun- eta jokabide-proba bat gainditu izana, ezagutzak neurtzeko proba gainditu izana, eta II. eta III. Eranskinetan araututakoaren arabera, arau mediku jakin batzuk betetzea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) AM kategoriarako proba teoriko jakin bat gainditu izana; estatu kideek exijitu ahal izango dute, batetik, gaitasun- eta jokabide-proba gainditu izana, eta bestetik, kategoria honetarako mediku-azterketa gainditu izana. Kategoria honetako triziklo eta kuadrizikloetarako, estatu kideek gaitasun- eta jokabide-proba berezi bat ezarri ahal izango dute. AM kategoriako ibilgailuak bereizteko, estatu-kodea txertatu ahal izango da gidabaimenean.

c) A2 edo A kategoriei dagokienez, A1 edo A2 motozikletak gidatzen 2 urteko esperientzia edukitzea gutxienez, hurrenez hurren; gaitasun- eta jokabide-proba bat bakarrik gainditu izana; edota VI Eranskinean azaldutakoari jarraituz, trebakuntza-prozesua osorik bete izana.

d) Trebakuntza-prozesua osorik bete izana edo gaitasun- eta jokabide-proba gainditu izana; edo bestela, trebakuntza-prozesua osorik bete eta gaitasun- eta jokabide-proba gainditu izana, V Eranskinak arautu bezala 4. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatiko 2. lerrokadan. Eranskin hori B kategoriako ibilgailu-taldeak gidatzeari buruzkoa da.

e) ohiko bizilekua gidabaimena egiten duen estatu kidean bertan izatea, edo erakustea estatu kide horretara ikasketak egitera joan dela gutxienez 6 hilabeterako.

2. a) 2013ko urtarrilaren 19tik aurrera, estatu kideek egiten dituzten gidabaimenek 10 urteko baliozkotasuna izango dute, baldin eta AM, A1, A2, A, B, B1 eta BE kategorietakoak badira. Estatu kideek gidabaimen horien baliozkotasuna 15 urtetaraino luzatu ala ez erabaki ahal izango dute.

b) 2013ko urtarrilaren 19tik aurrera, estatu kideek egiten dituzten gidabaimenek 5 urteko baliozkotasuna izango dute, baldin eta C, CE, C1, C1E, D, DE, D1 eta D1E kategorietakoak badira.

c) Gidabaimena berritzean, titularrak gida ditzakeen beste kategorietarako balio administratiboaren epea hasiko da. Hori guztia zuzentarau honetako baldintzak errespetatuz egingo da.

d) Gidabaimenak baliozkotasuna izateko, ez du zertan mikrotxipa eduki, 1. artikuluan arautu bezala. Mikrotxipa galdu egiten bada, ezin bada irakurri, edo beste kalteren bat izaten badu ere, dokumentua baliozkoa izango da.

3. Gidabaimena berritzea eta haren balio administratiboa iraungitzea honako baldintza hauen arabera egongo da:

a) beti errespetatzea gutxieneko arauak, gidatzeko behar den gorputz- eta adimen-gaitasunari buruzkoak. Arau horiek C, CE, C1, C1E, D, DE, D1, eta D1E kategorien III. Eranskinean daude.

b) ohiko bizilekua gidabaimena egiten duen estatu kidean bertan izatea, edo erakustea estatu kide horretara ikasketak egitera joan dela gutxienez 6 hilabeterako.

AM, A, A1, A2, B, B1 eta BE kategorietako gidabaimena berritzeko, estatu kideek azterketa bat egitea exiji dezakete: horrela egiaztatuko dute ea gidariak baduten gidatu ahal izateko gutxieneko gorputz- eta adimen-gaitasuna. Gutxieneko betekizun horiek III. Eranskinean daude araututa.

Gidariak edozein kategoriatan hasiberriak direnean, estatu kideek mugatu egin ahal izango dute gidabaimenen balio administratiboaren epea, 2. paragrafoan ezarrita dagoena. Mugatze horren bidez, neurri espezifikoak aplikatu ahal izango dira gidari horien gainean, errepideetako segurtasuna hobetzeko.

Gidariak C eta D kategoriatan hasiberriak direnean, estatu kideek 3 urtera mugatu ahal izango dute gidabaimenen balio administratiboaren epea. Mugatze horren bidez, neurri espezifikoak aplikatu ahal izango dira gidari horien gainean, haiek seguruago ibiltzeko errepidean.

Gidariak edozein kategoriatakoak direla ere, estatu kideek mugatu egin ahal izango dute 2. paragrafoan ezarritako gidabaimenen balio administratiboaren epea, baldin eta beharrezkoa ikusten badute maizago aplikatzea mediku-azterketak eta beste hainbat neurri espezifiko: esaterako, trafiko-arauak betetzen ez dituzten gidariei mugak jartzea.

Estatu kideek gutxitu egin ahal izango dute 2. paragrafoan ezarritako gidabaimenen balio administratiboaren epea, baldin eta gidabaimenen titularrak estatu kide horretan bizi badira, eta 50 urte bete badituzte. Gutxitze horren bidez, maizago eginarazi ahal izango dizkiete mediku-azterketak, eta beste neurri batzuk hartu ahal izango dituzte: esaterako, birziklatze-ikastaroak eginaraztea. Balio administratiboaren epea titularrak gidabaimena berritzen duen unean bakarrik gutxitu ahal izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Zigor-legeak eta polizia nazionalaren legeak bete beharko dituzte estatu kideek. Nolanahi ere, Batzordearekin kontsultatu ostean, estatu kideek beraien estatu-araudia –zuzentarau honetako baldintzekin bat ez datozen arauak zehazki – aplikatu ahal izango dute gidabaimena egiterakoan.

5 a) Inork ezingo du gidabaimen bat baino gehiagoren titularra izan.

b) Estatu kideek ez dute baimenik emango baldin eta berariak badakite eskatzailea jadanik badela gidabaimen baten titularra.

c) b) idatz-zatia aplikatzeko hartu behar diren neurri guztiak hartuko dituzte estatu kideek. Gidabaimenak emateko, ordezkatzeko, berritzeko edo aldatzeko behar diren neurriak hauek dira: gainerako estatu kideekin egiaztatzea ea badagoen nahikoa arrazoirik susmatzeko gidabaimena eskatzen duen norbait dagoeneko beste baten titularra dela.

d) b) idatz-zatian araututako kontrolak errazteko, estatu kideek Europako gidabaimenen sarea erabiliko dute, erabiltzeko moduan dagoen bezain laster.

Estatu kideek 2. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute. Nolanahi ere, gidabaimena ematen duten estatu kideek arretaz jokatu dute pertsona bakoitzak artikuluko 1. paragrafoko betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko. Betekizun horiek bete gabe eman bazaie gidabaimena, estatu-araudia zaie gidatzeko eskubidea kentzekari edo deuseztatzeari dagokionez.

8. artikulua

Aurrerapen zientifiko eta teknikoetara moldatzea

I.-IV. Eranskinak aurrerapen zientifiko eta teknikoetara behar bezala moldatzeko, 9. artikuluko 2.I.-IV. paragrafoan araututako prozedura jarraitu beharko da.

9. artikulua

Komitea

1. Batzordeak “Gidabaimenaren Komitearen” laguntza izango du.

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1.-4 paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.

10. artikulua

Aztertzaileak

Zuzentarau hau indarrean sartzen denetik, gidabaimenaren aztertzaileek IV. Eranskineko gutxieneko arauak errespetatu beharko dituzte. 2013ko urtarrilaren 19a baino lehenagotik horretan lanean dabilzan aztertzaileek bakarrik bete beharko dituzte kalitate-bermearen inguruko betekizunak eta aldizkako trebakuntza-jarduerak.

11. artikulua

Gidabaimena aldatzeko, kentzeko, ordezkatzeko eta onartzeko zenbait xedapen

1. Titularrak baliozko gidabaimen bat estatu kide batean egin badu, eta geroago ohiko bizilekua beste estatu kide batean finkatu, bertan bere gidabaimena aldatu ahal izango du, eta haren baliokidea lortu. Aldaketa egin behar duen estatu kidearen ardura izango da aurkeztutako gidabaimena beste zer gidabaimenen baliokidea den egiaztatzea.

2. Zigor-legeak eta polizia nazionalaren legeen lurraldetasun-printzipioa errespetatu beharko dute estatu kideek. Nolanahi ere, pertsona batek gidabaimena estatu kide batean lortu, eta beste estatu kide batean finkatzen badu bere ohiko bizilekua, azken horrek gidabaimenaren titularraren gainean bere estatu-araudia aplikatu ahal izango du: hain zuzen ere, gidatzeko eskubidea mugatzeari, indargabetzeari, kentzeari edo deuseztatzeari buruzko xedapenak. Beharrezkoa izanez gero, gidabaimena aldatu egingo litzateke.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kide batek gidabaimena aldatzea erabakitzen duenean, eman zuen estatu kideari bidaliko dio gidabaimen zaharra, eta zergatik aldatu duen azalduko dio.

4. Estatu kide batean pertsona bati gidabaimena mugatu, indargabetu edo kendu egin badiote, eta pertsona horrek beste estatu kide batean gidabaimena eskatzen badu, hark ez dio emango.

Estatu kide batek ez dio onartuko pertsona bati beste Estatu kide batek emandako gidabaimena, baldin eta haren lurraldean mugatu, indargabetu edo kendu egin badiote.

Estatu kide batek gidabaimena deuseztatzen badio pertsona bati, beste estatu kide batek ez dio zertan gidabaimena eman.

5. Gidabaimena galdu edo lapurtu izanagatik ordezkatu egin behar denean, estatu kide bakarreko agintaritzak eskudunek egin ahal izango dute beste bat: hain zuzen ere, titularrak bere ohiko bizilekua duen estatu kidekoek. Gidabaimena ordezkatzeko, agintaritzak eskudun horiek bi iturritan oinarritu ahal izango dira: bata, beraiek duten informazioa; eta bestea, hasiera batean gidabaimena eman zuen estatu kideko agintaritzak eskudunek bidalitako ziurtagiria.

6. Estatu kide batek hirugarren estatu batek emandako gidabaimena aldatzen badu, eta haren trukean erkidegoko eredia duen gidabaimena eman, adierazi egin beharko du gidabaimenean bertan. Halaber, berritzeren bat edo ordezkatzeren bat egiten bada gerora, hori ere adierazi egin beharko da.

Aldaketa hori egin baino lehen, estatu kideko agintaritzak eskudunei eman beharko zaie hirugarren estatuak emandako gidabaimena. Gidabaimen horren titularrak beste estatu kide batean finkatzen badu bere ohiko bizilekua, estatu kide horrek ez du nahitaz aplikatu beharko 2. artikuluan definitutako elkarrekiko onarpenaren printzipioa.

12. artikulua **Ohiko bizilekua**

Zuzentarau honen arabera, "ohiko bizileku" esaten zaio pertsona bat normalean bizi den lekuari: hau da, urte natural bakoitzeko gutxienez 185 egunetan zehar, lotura pertsonala eta profesionala direla medio pertsona bat bizi den lekuari. Batzuek bi lotura-motak dituzte; besteek, ordea, ez dute lotura profesionalik, eta horrek erakusten du lotura pertsonal estua dagoela pertsonaren eta bizilekuaren artean.

Edonola ere, pertsona baten lotura pertsonalak eta profesionalak leku desberdinetan daudenean, eta horren ondorioz, txandaka ibili behar duenean estatu kide batean eta bestean (edo bestetan) bizitzen, ohiko bizilekutzat hartuko da lotura pertsonalak dituen lekua, beti ere erregulariki itzultzen bada leku horretara. Azken baldintza hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta pertsona hori beste estatu kide batera denbora jakin baterako bakarrik badoa lan egitera. Unibertsitate edo eskola batera joateagatik, ez da zertan ohiko bizilekua aldatu.

13. artikulua **Erkidegokoak ez diren baimen-ereduekiko baliokidetasunak**

Batzordearekin adostu ostean, estatu kideek arautuko dute zer baliokidetasun dagoen 4. artikuluan definitutako kategorien eta zuzentarau hau aplikatzen hasi baino lehenago emandako gidabaimenen artean.

Batzordearekin kontsultatu ondoren, estatu kideek behar diren moldaketak egin ahal izango dituzte beraien estatu-araudietan, horrela 11. artikuluko 4., 5. eta 6. paragrafoko xedapenak aplikatu ahal izateko.

Zuzentarau honetako xedapenek ez dituzte inola ere baliogabetuko 2013ko urtarrilaren 19a baino lehen emandako gidabaimenak.

14. artikulua **Ebaluazioa**

Batzordeak 2018ko urtarrilaren 19a baino lehen emango du zuzentarau honen aplikazioaren berri, bai eta errepideetako segurtasunean zein ondorio izan dituen ere.

15. artikulua **Elkarlaguntza**

Estatu kideek elkarri lagunduko diote zuzentarau hau aplikatzeko garaian, eta elkarri informazioa emango diote egindako, aldatutako, ordezkatutako, berritutako, eta deuseztatutako baimenei buruzkoa. EBko gidabaimenaren sarea funtzionatzen hasten denean, hura ere erabiliko dute, horretarako sortu baita.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

16. artikulua

Estatuko Zuzenbidean txertatzea

Luzeen jota 2011ko urtarrilaren 19a baino lehenago, estatu kideek behar diren legezko, erregelamenduzko eta administrazio-xedapenak hartu eta argitaratuko dituzte; eta horrela bete ahal izango dituzte: 1. artikuluko 1. paragrafoa, 3. artikulua, 4. artikuluko 4. paragrafoa, 1., 2. eta 3. paragrafoetako b) eta k) arteko idatz-zatiak, 6. artikuluko 1. paragrafoa eta 2. paragrafoko a), c), d) eta e) idatz-zatiak, 7. artikuluko 1. paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatiak eta 2., 3. eta 5. paragrafoak, 8. artikulua, 10. artikulua, 13. artikulua, 14. artikulua, 15. artikulua, I. eranskineko 2. puntua, II. eranskineko 5.2 puntua, eta IV., V. eta VI. eranskinak. Berehala emango diote batzordeari xedapen horietako testuaren berri.

2013ko urtarrilaren 19tik aurrera aplikatuko dituzte xedapen horiek.

Estatu kideek xedapen horiek hartzen dituztenean, zuzentarau honi ere erreferentzia egingo diote bertan, eta bestela, zuzentarau honen argitalpen ofizialaren erreferentzia agertuko da. Halaber, honako hau ere aipatu beharko da: zuzentarau honek indargabetu duen zuzentarauko legezko, erregelamenduzko eta administrazio-xedapenetan hainbat erreferentzia egiten zitzaizkion lehengo zuzentarauari; orain erreferentzia horiek denak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira. Estatu kideek arautuko dute zer-nolakoak izango diren erreferentzia horiek eta aipamen hori nola egingo den.

Estatu kideek batzordeari jakinaraziko dizkiote zuzentarau honek arautzen duen esparruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko funtsezko xedapenak.

17. artikulua

Indargabetzea

2013ko urtarrilaren 19tik aurrera, 91/439/EEE Zuzentaraua indargabetuta geratuko da. Nolanahi ere, estatu kideek zuzentarau hau estatuko zuzenbidean txertatzeko epeak bete beharko dituzte, VII. eranskineko B zatian arautu bezala.

2007ko urtarrilaren 19an indargabetuko da 91/439/EEE Zuzentarauko 2. artikuluko 4. paragrafoa.

Indargabetutako zuzentarauari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, eta VIII. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

18. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunetara sartuko da indarrean zuzentarau hau,

2009ko urtarrilaren 19tik aurrera aplikatu ahal izango dira 2. artikuluko 1. paragrafoa, 5. artikulua, 6. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatia, 7. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatia, 9. artikulua, 11. artikuluko 1., 3., 4., 5. eta 6. paragrafoak, 12. artikulua eta I., II. eta III. eranskinak.

19. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak. Bruselan, 2006ko abenduaren 20an.

Europako Parlamentuaren izenean Presidentea J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean Presidentea